

Euskal Autonomi Elkarteeko Xedapen Orokorra

Disposiciones Generales del País Vasco

OSASUN SAILA

2902

267/1992 DEKRETUA, urriaren 6koa, Euskal Autonomi Elkartearen gorpuzkak eta gorpuzkiak garraiatzeko osasunbide baldintzak ezartzeko dena.

Hildakoei buruzko osasunbide poliziaren gaia, irailaren 7ko 2209/1979 Errege Dekretuaren bidez, osasunbidearen eskuduntzaren barruan sartuta transferitu zitzaien Euskal Autonomi Elkarteari.

Gai horri buruzko gaurko arauteria, funtsean, uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretuan dago jasota eta bertan arautzen dira gorpuzkak eta gorpuzkiak bestetatzeko prozedurak eta osasunbide baldintzak eta ehorzketa enpresak ere bai.

Osasunbide baimen bat ematea eskatzen da dekretu horretan gorpuzkak eta gorpuzkiak garraiatzeko. Bete-kizun horrek, osasunbide arriskurik gabeko edo Euskal Herriko Autonomi Elkartearen muga pasatzen ez duteneko gorpuzkak eta gorpuzkiak garraioa garatzeko, nabarmena bai baina beharrezkoa ez den atzerapen bat dakar.

Horregatik, gaurko geografi ezaugarriak, toki mailako ohitura eta usarioak, kutsagarri diren eritasunei buruzko ezagutzak eta izurrite egoerak, halaber, komunikabideen hobekuntzak eta garraio baliabideak kontutan harturik, gai horretan beharrezkoak diren izapide-keta eta betebeharrok erraztuko dituen lege esparru bat czartzea aholkugarria da, beraz, gorpuzten ohizko garraiorako osasunbide baimena, gure herrialde eremuaren barruan, beharrezko ez izatea bilatzen du arau honek, baldin eta ekintza horrek betetzen baditu xedapen honek jartzen dituen baldintzak eta, hala ere, baimen hori, gorpuzten eramanketa eta bestetaratze bereizietarako kasuetan esku ahal izango dela.

Alor horretako administrazio izapideketak laburtzea nahi da neurri horien bitarbez, beti ere, osasun publikoa zaintzeko beharrezko diren osasunbide bermeak gordez eta, helburu horiek izango direla osasunbide alor horretako administrazio iharduketa eramango dutenak.

Euskal Autonomi Elkartetik kanpoko eremutik helten eta honara datozen edo hemendik zehar doazen gorpuzkak eta errautsen garraioari dagokionez, jatorrizko edo abiapuntuko tokian indarrean dagoen araugintzari egokituko zaio eta gorpuzten nazioarteko garraioari dagokionez, gai horri buruz dagoen berarizko legeria erabiliko da eta kanpoko osasunbiderako zerbitzuetako osasunbide agintaritzak horretarako agindutako baimenekin batera joango da.

Hori dela bide, Osasun Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko urriaren 6an egindako bere bileran aztertu eta erabaki ondoren, hau

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2902

DECRETO 267/1992, de 6 de octubre, por el que se establecen las condiciones sanitarias del Transporte de Cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La materia de policía sanitaria mortuaria fue transferida a la Comunidad Autónoma del País Vasco, encuadrada en la competencia de sanidad, a través del Real Decreto 2209/1979, de 7 de septiembre.

La actual normativa sobre dicha materia está recogida fundamentalmente en el Decreto 2263/1974, de 20 de julio, en el que se regulan los procedimientos y las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos, así como las empresas funerarias.

En dicho Decreto se exige para realizar el traslado de un cadáver o resto que se extienda una autorización sanitaria. Tal requisito supone una demora sustancial e innecesaria en el desarrollo del transporte de aquellos cadáveres y restos que no presenten un peligro sanitario o que no vayan a traspasar el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por ello, dadas las actuales características geográficas, los usos y costumbres locales, los conocimientos y la situación epidemiológica de las enfermedades transmisibles, así como la mejora de las vías de comunicación y de los medios de transporte, es aconsejable establecer un marco legal que facilite los trámites y requisitos legales necesarios sobre esta materia, por lo que la presente norma pretende que en nuestro ámbito territorial no sea necesaria autorización sanitaria para la conducción ordinaria de cadáveres, siempre que la misma cumpla las condiciones señaladas en la presente disposición, siendo exigible, sin embargo, dicha autorización para los supuestos de conducción especial y traslado de cadáveres.

Con dichas medidas se intenta simplificar trámites administrativos en este campo, si bien siempre manteniendo las necesarias garantías sanitarias para salvaguardar la salud pública, siendo esos fines los que han de presidir la actuación administrativa en este área del ámbito sanitario.

Con respecto al transporte de cadáveres, restos y cenizas procedentes de fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y con destino en ella, o bien en tránsito por la misma, se ajustará a la normativa vigente del lugar de origen o partida, y en cuanto al transporte de cadáveres internacionales se aplicará la legislación específica sobre dicha materia, acompañando las autorizaciones preceptivas para el mismo, expedidas por la autoridad sanitaria competente de los servicios de sanidad exterior.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 6 de octubre de 1992,

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.- Euskal Autonomi Elkartearen eremuan gorpuzt eta gorpuzkien garraiorako osasunbide baldintzak ezartzea du xedetzat dekretu honek.

2. atala.- Arau honen erabilpenerako berarizko helburuetarako, hitz hauek honela ulertu behar dira:

– **Gorputza.** Giza-soina da, heriotzaren hurrengo bost urteetan zehar, heriotz hori Erregistro Zibilean inskrubatzen den ordu eta egunetik aurrera kontatuko dela aldi hori.

– **Gorpuzkia.** Heriotza ondoren bost urte igaro ondoren eta gai organikoaren desegite-fenomenoak bukatu ondoren giza soinetik gelditzen dena da gorpuzkia.

– **Giza-soin zatia.** Nahiko izatedun eduki eta ebaketetatik, mozketetatik eta abortoetatik datorrena.

– **Errautsa.** Erreketa ondoren, gorputzetik, gorpuzkitik edo giza-soin zatitik geratzen dena.

– **Ustelketa.** Gai organikoa desegiten ari deneko prozesua.

– **Eskeletutzea.** Gai organikoaren desegitearen azkeneko fasea, erabateko mineraltze arte.

– **Erretzea edo errauts bihurtzea.** Gorputza edo gorpuzkia beroaren bidez errauts bihurtzea.

– **Aldibaterako iraunarezpena.** Usteltze prozesua atzeratzeko metodoa.

– **Baltsamaketa.** Usteltze fenomenoen agerketa galerazteko metodoa.

– **Hildakoaren egoitza.** Heriotza gertatzen deneko tokia (etxebizitza edo ospital zentru bat).

– **Ehorzketa enpresa.** Gorputzak eta gorpuzkiak jasotzea eta garraiatzea eta zerraldoz hornitzea bezalako ehorzketa zerbitzuak betetzeko eratzen dena.

– **Gorputz guztien azken helmuga.** Lurperatzea, legez baimendutako tokietan erretzea edo itsas zabalean urperatzea.

3. atala.- 1. Hiltzea ekarri duten eragileen arabera, bi sailetan sailkatzen dira gorputzak:

– **I. saila.** Erradiazioa edo kutsaketa dela medio hildako pertsonak hartzen ditu sail horrek, osasunarentzako arriskua ekar dezaketenak, adibidez: kolera, sukar horia, tifus esantimaticoa, zorrien bidezko sukar erreurrentea, perlesi-poliomelitis, paludismoa, mingaztoa, amorrua, izurria eta -hala gertatzen denean-aparteko izurrite gorabehererek hori beharrezkoa izatea eragiten dutenean, Osasun Sailak erabaki ditzanak.

– **II. saila.** I. sailean sartzen ez diren guztiak hartzen ditu sail horrek.

2. Lehenengo sailean sartzen diren gorputzak ezingo dira aldibaterako iraunerezpenerako, baltsamaketarako, lurpetik ateratzeko edo hil den tokitik beste batera bestetaratzeko gai izango, heriotza gertatu den herriko hilerrira eraman behar delarik ahalik eta laisterron. Mota horretako gorputzentzat erabili beharreko zerraldoak, hurrengo ataleko b) puntuau adierazitakoak izango dira.

DISPONGO:

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- El presente Decreto tiene por objeto el establecimiento de las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.- A los fines específicos de aplicación de la presente norma, se entiende por:

– **Cadáver.** Es el cuerpo humano durante los cinco años siguientes a la muerte, computándose desde la hora y fecha que figure en la inscripción de defunción del Registro Civil.

– **Resto cadavérico.** Es lo que queda del cuerpo humano, transcurridos al menos cinco años desde la muerte y terminados los fenómenos de destrucción de la materia orgánica.

– **Resto humano.** Es el de entidad suficiente procedente de intervenciones quirúrgicas, amputaciones o abortos.

– **Ceniza.** Lo que queda de un cadáver, resto cadavérico o resto humano, tras la cremación.

– **Putrefacción.** Proceso por el que va desapareciendo la materia orgánica.

– **Esqueletización.** Fase final de desintegración de la materia orgánica hasta la total mineralización.

– **Cremación o incineración.** Es la reducción a cenizas del cadáver o resto por medio de calor.

– **Conservación transitoria.** Método para retrasar el proceso de putrefacción.

– **Embalsamamiento.** Método para impedir la aparición de los fenómenos de la putrefacción.

– **Domicilio Mortuorio.** Lugar en el que se produce el fallecimiento (vivienda o centro hospitalario).

– **Empresa Funeraria.** Es la que se constituye para la realización de servicios funerarios, como son la recogida y transporte de cadáveres y restos o la provisión de féretros.

– **Destino final de todo cadáver.** Inhumación, cremación en lugares legalmente autorizados o inmersión en alta mar.

Artículo 3.- 1. Los cadáveres se clasifican en dos grupos, según las causas de la defunción:

– **Grupo I.** Comprende los de las personas fallecidas por causa radioactiva o infecciosa, que supongan riesgo sanitario, como el cólera, fiebre amarilla, tifus exantemático, fiebre recurrente por piojos, poliomielitis paralítica, paludismo, carbunclo, rabia, peste y aquellas otras que, en su momento, pueda determinar el Departamento de Sanidad, cuando excepcionales circunstancias epidemiológicas lo hagan necesario.

– **Grupo II.** Comprende todos aquellos no incluidos en el Grupo I.

2. Los cadáveres incluidos en el Grupo I no serán susceptibles de conservación transitoria, embalsamamiento, exhumación ni traslado del lugar donde ha acaecido el fallecimiento a otro distinto, debiendo conducirse a la mayor brevedad posible al cementerio de la localidad donde haya sucedido el óbito. Los féretros a utilizar para este tipo de cadáveres serán los reseñados en el punto b) del artículo siguiente.

4. atala.- 1. Gorputzak garraiatzeko beharrezkoa izango da zerraldoa erabiltzea, mota hauek bereizten direla:

a) **Arrunta.** Gutxienez 15 milímetroko lodiera duten oholez egina izango da, elkarrekin sendo eta tarteko zirrikiturik gabe lotua. Tapa, kuxaren azpiko zatiari egoki lotuko zaio.

Zuraren ordez, baimendutako beste materialak era bili ahal izango dira baina gorputzaren ustelketa normala galeraziko duen iragazkaitz den beste edozein estalgarri edo poltsarik ezingo da erabili.

b) **Bestetaratzekoa.** Bi kuxaz osaturik egongo da. Lehenengoa, zerraldo arrunten antzeko egitura modua izango du baina, zura sendoa eta oholek 20 milímetroko lodiera izango dute gutxienez. Gainera, 60 zentimetro baino txikiago den bitartea duten metalezko uztar-gailuz sendotua egongo da.

Barnekaldeko kutxa, berunez soldatutako xaflez egina izan daiteke, 2,5 milímetroko lodieraz gutxienez edo zinkez soldatutako xaflez eginak, 0,45 milímetroko lodieraz gutxienez.

Balbula iragazkorren bidez edo beste antolabide egokien bidez, bere barruan gasen presioaren ondorioak galerazteko egokiturik egongo da zerraldoa.

2. Gorpuzki-zerraldoa erabiltzea beharrezkoa izango da gorputz-zatiak garraiatzeko. Metalezko materialez edo iragazkaitz den edo iragaitztutako beste edozein materialez egina izango da. Bere neurriak, gorpuzkiak presiorik edo indarrik gabe hartzeko behar direnak izango dira.

3. Errauts-atabaka erabiltzea beharrezkoa da errautsak garraiatzeko.

5. atala.- 1. Autonomi Elkartaren lurrealdean zehar, gorputzen garraioa honelakoetan egin ahal izango da:

a) Bai motorraren bidez eta bai abereen bidez garraiatutako ehorzketa ibilgailuetan.

b) Treneko furgoieta.

c) Untzi eta egazkinetan, itsasoko eta aireko garraioa arautzen duen arauteriaren arabera.

Garraio gailu horietan, zerraldoa datzaneko azale-rak iragazkaitza den materialez eztalirik egon beharko du.

2. Ambulantzietan, taxisetan, alogereko kotxeetan, kotxe partikularretan edo aurreko apartaduetan adie-razi gabeko beste edozein gailutan gorputzak garraia-tea galerazita gelditu da.

II. ATALBURUA

GARRAIOA

6. atala.- Dekretu honetan araupetzen den gorputzen, gorpuzkien eta errautsen garraioak, atalburu honetako ondorengo atal hauetan ezarritako modueta-koak izango dira.

Artículo 4.- 1. La utilización de féretro es obligatoria para el transporte de cadáveres, distinguiéndose los siguientes tipos:

a) **Común.** Estará construido con tablas de madera de 15 milímetros de espesor como mínimo, unidas sólidamente entre sí, sin abertura alguna entre ellas. La tapa encajará convenientemente en el cuerpo inferior de la caja.

Podrá ser sustituida la madera por otros materiales autorizados, no pudiéndose emplear ningún otro material, revestimiento o bolsa de características impermeables, que impidan la normal putrefacción del cadáver.

b) **De traslado.** Estará compuesto de dos cajas. La primera, análoga en su construcción a la de los féretros comunes, pero de madera fuerte y cuyas tablas tengan 20 milímetros de espesor como mínimo. Además, será reforzada con abrazaderas metálicas, que distarán entre sí menos de 60 centímetros.

La caja interior podrá ser de láminas soldadas de plomo, de 2,5 milímetros de espesor como mínimo, o de láminas soldadas de zinc, de 0,45 milímetros de espesor como mínimo.

El féretro será acondicionado de forma que impida los efectos de la presión de los gases en su interior, mediante válvulas filtrantes u otros dispositivos adecuados.

2. La utilización de caja de restos es obligatoria para el transporte de restos cadavéricos. Estará construida con material metálico o con cualquier otro impermeable o impermeabilizado. Sus dimensiones serán las precisas para contener los restos, sin presión o violencia sobre ellos.

3. La utilización de urna de cenizas es obligatoria para el transporte de cenizas.

Artículo 5.- 1. El transporte de cadáveres dentro del territorio de nuestra Comunidad Autónoma, podrá realizarse en:

a) Coches fúnebres, bien de tracción animal, bien de motor mecánico.

b) Furgones de ferrocarril.

c) Buques y aeronaves, de acuerdo con la normativa reguladora del transporte marítimo y aéreo.

En los citados medios de transporte, será necesario que la superficie de los mismos en la que ha de descansar el féretro, se halle revestida de material impermeable.

2. Queda prohibido el transporte de cadáveres en ambulancias, taxis, coches de alquiler, coches particulares o en cualquier otro medio no previsto en los apartados anteriores.

CAPITULO II

TRANSPORTE

Artículo 6.- El transporte de cadáveres, restos o cenizas regulados en este Decreto, revestirá alguna de las modalidades establecidas en los artículos siguientes del presente Capítulo.

Lehenengo sekzioa.**Ohizko garrioa**

7. atala.- 1. II. saileko gorputzen garraioa, lurperatuak izan ez badira eta heriotzaren hurrengoa 48 orduak baino lehenago egiten bada, Euskal Autonomi Elkarteko lurrarde eremuaren barruan, ohizko gorputz-garaiotzat joko da eta eta horrek ez du osasunbide baimenaren beharrak izango.

Epaile eskuhartzeren bat tartejartzen bada, ez da ohizko gorputz-garaiotzat joko garraio hori.

2. Ohizko zerraldoan egingo da garraioa eta legez baimendurik dagoen enpresak burutuko du hori.

Bigarren Sekzioa.**Bestetaratzea**

8. atala.- Lurperatu gabeak direnean eta hil ondoren 48 ordu joan direnean edo horrek Euskal Autonomi Elkartearren eremua gainditzen duenean edo epaile eskuhartzeren bat tartejartzen bada, bestetaratza bezala joko da II. saileko gorputzen garrioa eta, dekretu honetan xedatutakoaren arabera, osasunbide baimenaren beharra izango du.

2. Garraioa, bestetaratzeko zerraldoan egingo da, epailearen eskuhartzeak, parte hartzen duen kasuan, agintzen duenearen kaltetan izan gabe eta legez baimendutako ehorzketa enpresak burutuko du.

Hirugarren sekzioa.**Gorputz eramanketa berezia**

9. atala.- 1. Heriotza gertatu deneko herriko hilerrian lurperatua izateko, I. saileko gorputzen garraioa gorputz eramanketa berezitzat joko da eta osasunbide baimena eduki beharko du.

2. Bestetaratzeko zerraldoan egingo da garraioa eta legez baimendutako ehorzketa enpresa batek burutuko du.

Laugarren sekzioa.**Gizasoin-zatiak eta errautsak garraiatzea**

10. atala.- Giza-soin zatiengarria, gorputzentzat xedapen honetan ezarri den eran gauzatuko da baina gorpuzkien kuxtan egingo da.

11. atala.- Gorputzen edo gorpuzkien errautsen garraioak ez du osasunbide baimenik beharko eta errautsetarako atabakan egingo da.

III. ATALBURUA**LURPETIK ATERATZEA****Lehenengo sekzioa.****Gorputzak**

12. atala.- 1. II. saileko gorputzak, berriro lurperatzeko asmotan, lurpetik ateratza eta garraiatza, lehenago lurperatuak izan ziren hilerrian bertan egin daiteke edo beste hilerri batean, bi kasuetan osasun baimenaren beharrak izango.

Sección primera.**Conducción ordinaria**

Artículo 7.- 1. El transporte de cadáveres del Grupo II, dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se considerará conducción ordinaria y no precisará autorización sanitaria, siempre que no hayan sido inhumados y el transporte se realice antes de las 48 horas desde el fallecimiento.

Dicho transporte no tendrá la consideración de conducción ordinaria si media intervención judicial.

2. El transporte se realizará en féretro común y se llevará a cabo por empresa funeraria legalmente autorizada.

Sección segunda.**Traslado**

Artículo 8.- El transporte de cadáveres del Grupo II, no inhumados, y habiendo transcurrido 48 horas desde el fallecimiento, o cuando el mismo exceda del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o medie intervención judicial, se considerará traslado y precisará autorización sanitaria, de acuerdo con lo dispuesto en el presente Decreto.

2. El transporte se efectuará en féretro de traslado, sin perjuicio de lo que establezca la autoridad judicial, en el supuesto de que intervenga, y se llevará a cabo por empresa funeraria legalmente autorizada.

Sección tercera.**Conducción especial**

Artículo 9.- 1. El transporte de cadáveres del Grupo I para su rápida inhumación en el cementerio de la localidad en la que haya acaecido el fallecimiento, se considerará conducción especial y precisará autorización sanitaria.

2. El transporte se efectuará en féretro de traslado y se llevará a cabo por empresa funeraria legalmente autorizada.

Sección cuarta.**Transporte de restos humanos y de cenizas**

Artículo 10.- El transporte de restos humanos, se realizará de igual forma a la establecida en esta disposición para los cadáveres, salvo que se llevará a cabo en caja de restos.

Artículo 11.- El transporte de cenizas procedentes de cadáveres o de restos por cremación no precisará autorización sanitaria, realizándose en urna de cenizas.

CAPITULO III**EXHUMACION****Sección primera.****Cadáveres**

Artículo 12.- 1. La exhumación y transporte de cadáveres del Grupo II para su reinhumación, podrá realizarse bien en el mismo cementerio en que fueron inhumados anteriormente, bien en cementerio distin-

na behar delarik eta lehenengo kasuan zerraldo arrunta eskatzen delarik eta bigarrenean bestetaratzeko zerraldoa.

2.- Epailaritza agintariak hori eskatzen duenean salbu, atal honetako 1. apartaduan aipatzen den gorputzen lurpetik ateratze hori, ondorengo kasu hauetan debekaturik dago:

a) Baltsamatutako gorputzak direnean salbu, heriotzaren ondorengo hurrengo bi urteetan.

b) Osasunbide baimenez eta aparteko kasuetan izan ezik, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean.

Bigarren sekzioa.

Gorputz-zatiak

13. *atala*.- 1. Hilerri berean berriro lurperatuak iza-teko, ez da eskatuko osasunbide baimenik gorputz-zatiak lurpetik ateratzeko eta garraiatzeko.

Berriro lurperatze hori beste hilerri batetan egiten bada, osasunbide baimena eskatuko da.

Bi kasu horietan, gorputzki kutxan egingo da garraioa.

2. Heriotzetik aurrera bost urte bete ondoren gorputzaren materia organikoaren desegite fenomenoak bukatu ez badira, lurpetik ateratzea, garraioa eta horren ondorengo lurperatzea, lurperatutako gorputz bati dagozkion baldintzetan burutuko da.

Hirugarren sekzioa.

Giza-soin zatiak

14. *atala*.- Xedapen honetan gorpuntzentzat ezarri-tako eran egingo da giza-soin zatiengen lurretik ateratzea eta garraioa, baina kutxa, giza-soin zatiengen erabiliko da.

IV. ATALBURUA

OSASUNBIDE BAIMENAK

15. *atala*.- 1- Dekretu honetan xedatutakoaren arabera gorputz-eramanketarako, bestetaratzeko eta lurpetik ateratzeko eskatzen den osasunbide baimena, hildakoaren familiako batek edo bere hurbileko pertsona batek eskatu beharko du.

2. Sail honetako dagokion lurrarde ordezkariek emango dio erabaki bat osasunbide baimenarako eska-bideari, xedapen honen I. eraskin bezala ageri den ereduaren arabera.

3. Eskabide horrek, ondorengo agiri hauekin batera joan beharko du:

- Gorputzak edo gorputzkiak bestetaratzeko edo era-mate bereziatarako:

a) Heriotzaren mediku-zuirtagiria, heriotzaren eguna eta kausa bertan adierazten direla edo, giza-soin zatiak diren kasuan, mozketaren, abortuaren eta abarren mediku zuirtagiria.

b) Lurperatzeko lizentzia.

Horrez gain, II. saileko lurperatu gabeko gorputzen kasuetan eta hiltze unetik aurrera 48 ordu baino gehia-

to, precisándose en ambos supuestos autorización sanitaria, exigiéndose en el primer caso féretro común, y en el segundo féretro de traslado.

2.- Se prohíbe la exhumación y reinhumación de cadáveres a que se refiere el apartado 1 de este artículo, excepto cuando lo requiera la autoridad judicial, en los siguientes casos:

a) En los dos años siguientes a la muerte, salvo cadáveres embalsamados.

b) Durante los meses de junio, julio, agosto y septiembre, salvo causas excepcionales y previa autorización sanitaria.

Sección segunda.

Restos cadavéricos

Artículo 13.- 1. La exhumación y transporte de restos cadavéricos para su reinhumación dentro del mismo cementerio no exigirá autorización sanitaria.

Si la reinhumación se efectúa en otro cementerio, se exigirá autorización sanitaria.

En ambos casos el transporte se realizará en caja de restos.

2. Caso de que transcurridos cinco años desde la muerte, el cuerpo humano no haya terminado los fenómenos de destrucción de la materia orgánica, la exhumación, el transporte y su posterior reinhumación se llevará a cabo en las mismas condiciones que si se tratase de un cadáver inhumado.

Sección tercera.

Restos humanos

Artículo 14.- La exhumación y transporte de restos humanos se realizará de igual forma a la establecida en esta disposición para los cadáveres, salvo que se llevará a cabo en caja de restos.

CAPITULO IV

AUTORIZACIONES SANITARIAS

Artículo 15.- 1. La autorización sanitaria para las conducciones especiales, traslados y exhumaciones de cadáveres o restos, que la requieran de conformidad con lo dispuesto en el presente Decreto, será solicitada por un familiar o persona allegada del fallecido o en su representación por la empresa funeraria encargada del servicio.

2. La solicitud de autorización sanitaria será resuelta por el Delegado Territorial de Sanidad del Territorio Histórico que corresponda, de acuerdo con el modelo que como Anexo I figura en esta disposición.

3. A dicha solicitud se deberá acompañar la documentación siguiente:

- Para traslados de cadáveres y restos o conducciones especiales:

a) Certificado médico de defunción, en el que se indique la fecha y causa de la muerte, o certificado médico de la amputación, aborto, etc., en el supuesto de restos humanos.

b) Licencia de enterramiento.

Además, en los casos de cadáveres del Grupo II sin inhumar y que van a ser inhumados transcurridas más

go igaro ondoren Spainiako lurrualdean lurperatuak izango direnetan edo egazkinaz bidaiatuko dutenetan, beste hauek:

c) Baltsamatzeo edo aldibaterako iraunerezpenerako akta, auzitegi mediku batek edo tanatologo batek izenpetua.

Eta epailearen partehartzerik egon bada, beste hau:

d) Eskuduntzadun epailearen baimena.

- Gorputzak eta gorpuzkiak lurretik ateratzeko, a) eta b) puntuetan adierazitakoa.

16. atala.- Osasun Sailaren lurralteetako ordezkariek, beren lurraldeen eremuaren barruan, dekretu honen II. eraskin gisa ageri den zerrenda ofiziala bete beharko dute hilero, bertan, erabaki bat eman zaien gorputz eramate berezien, bestetaraketen eta lurpetik ateratzearen eskabide guztiak zehaztuko direlarik.

V. ATALBURUA

EHORZKETA ENPRESAK

17. atala.- Edozein ehorzketa enpresak, nonbait kokatu ahal izateko, bere egoitza soziala kokatzen deneko herriko dagokion udal baimena eduki behar du, Osasun Sailaren dagokion lurralte historikoko lurralte ordezkaritzak aldeko osasunbide informea eman ondoren.

18. atala.- Baimendutako eta Euskal Autonomi Elkartean kokatutako ehorzketa enpresek, xedapeneko III. eraskin gisa ageri den zerrenda ofiziala beteko dute hilero.

19. atala.- Euskal Autonomi Elkartean jarriko diren ehorzketa enpresek, legez ezarrita dauden baimenak lortu ondoren, ondorengo zehaztasun hauek jakinaziko dizkiote Osasun Sailaren beren lurralte historiko lurralte ordezkaritzari:

a) Enpresaren izen soziala.

b) Udal baimena.

c) Enpresaren zuzendaritzaren arduradun den langilegoa eta, lanbide kategorietan banaturik, langilegoaren plantila.

d) Egoitza soziala eta instalazioen kokalekua.

e) Ehorzketa garraiorako diren ibilgailuak.

VI. ATALBURUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

20. atala.- Osasunbide kontrolerako eta dekretu honetan ezarritako eta hildakoei buruzko osasunbide poliziari buruzko gainerako xedapenak betetzen direnaren egiaztapenerako beharrezko diren eskuduntzak erabili ahal izango ditu Osasun Sailak.

21. atala.- Dekretu honetan dauden xedapenen aurkako hauspenak, dagokion administrazio expedientea egin ondoren eta horrekin batera egon daitezkeen erantzunbehar zibilen, penalen edo beste eratakoen kaltetan izan gabe, indarrean dagoen osasunbide arau-gintzan agindutakoaren arabera, administrazio zigorren xede izan daitezke.

de 48 horas desde el fallecimiento, en territorio español, o que van a viajar en avión:

c) Acta de embalsamamiento o de conservación transitoria, firmada por un médico forense o tanatólogo.

Y si ha existido intervención judicial:

d) Autorización del juez competente.

- Para exhumaciones de cadáveres y restos, lo señalado en los puntos a) y b).

Artículo 16.- Los Delegados Territoriales de Sanidad, en sus respectivos ámbitos territoriales, deberán cumplimentar mensualmente el estadillo oficial que figura como Anexo II de este Decreto, en el que se detallen todas las solicitudes de autorización de conducciones especiales, traslados y exhumaciones que hayan sido resueltas.

CAPITULO V

EMPRESAS FUNERARIAS

Artículo 17.- Toda empresa funeraria para su establecimiento deberá tener la correspondiente autorización municipal de la localidad de su sede social, concedida previo informe sanitario favorable emitido por la Delegación Territorial de Sanidad del Territorio Histórico correspondiente.

Artículo 18.- Las empresas funerarias autorizadas y ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco cumplimentarán mensualmente el estadillo oficial que figura como Anexo III de la presente disposición.

Artículo 19.- Las empresas funerarias que se establezcan en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán comunicar a la Delegación Territorial de Sanidad de su Territorio Histórico, una vez obtenidas las autorizaciones legalmente establecidas, los siguientes datos:

a) Nombre social de la empresa.

b) Autorización municipal.

c) Personal responsable de la dirección de la empresa, y plantilla de personal detallada por categorías profesionales.

d) Domicilio social y localización de las instalaciones.

e) Número de vehículos destinados al transporte funerario.

CAPITULO VI

INFRACCIONES Y SANCIONES

Artículo 20.- El Departamento de Sanidad podrá ejercer las funciones necesarias para el control sanitario y comprobación del cumplimiento de lo establecido en este Decreto y demás disposiciones sobre policía sanitaria mortuoria.

Artículo 21.- Las infracciones a las disposiciones contenidas en el presente Decreto podrán ser objeto de sanciones administrativas, con arreglo a lo previsto en la normativa sanitaria vigente, previa la instrucción del oportuno expediente administrativo, y sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden que pudieran concurrir.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Osasun Sailburuaren agindu baten bidez aldatu ahal izango dira xedapen honetan agindutako eraskinak.

Bigarrena.- Euskal Autonomi Elkartearen lurralteko eremuaren kanpotik datozen eta bertaratzeko diren gorpuzten, gorpuzkien edo errautsen garraioa, halaber, lurralte horretan zehar igarotzeko dena, jatorrizko edo abiapuntuko tokian indarrean dagoen legeriari lotuko zaio, dekretu honen eta horretan erabili beharreko xedapenen arabera, hartzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailari dagokion osasun publikorako segurtasun neurrien kaltetan izan gabe.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Dekretu honen indarrarte egunean hasita dauden administrazio espedienteetan eta beroietan erabaki irlorrik eman ez denean, dekretu honetan adierazitako lege araubidearen arabera erabakiko da.

Bigarrena.- Euskal Autonomi Elkartearen legearen arabera kokaturik dauden ehorzketa enpresek, dekretu honen indarrarte unetik aurrera 3 hilabetetako epe baten barruan, honen 19. atalean adierazitako zehaztunak bidali beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezko diren xedapenak jartzeko eskuduntza ematen zaio Osasun Sailburuari.

Bigarrena.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Bilbao, 1992ko urriak 6.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun Sailburua,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- Los Anexos previstos en esta disposición podrán ser modificados por Orden del Consejero de Sanidad.

Segunda.- El transporte de cadáveres, restos o cenizas procedentes de fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y con destino en la misma, así como el transporte de tránsito por dicho territorio, se ajustarán a la normativa vigente en el lugar de origen o partida, respectivamente, sin perjuicio de las medidas de aseguramiento de la salud pública que, con arreglo al presente Decreto y demás disposiciones de aplicación, corresponda adoptar al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.- Se resolverán de acuerdo con el régimen jurídico previsto en el presente Decreto los expedientes administrativos que se encuentren iniciados a su entrada en vigor y sobre los que no hayan recaído resoluciones firmes.

Segunda.- Las empresas funerarias legalmente establecidas en la Comunidad Autónoma deberán remitir en el plazo de 3 meses, a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, los datos referidos en el artículo 19 del mismo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

Segunda.- El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Bilbao, a 6 de octubre de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

I. ERASKINA

BAIMENA

G. eramanketa berezikoan

Bestetaratzekoan

Lurpetik ateratzekoan

Gorputza

Giza-soin zatia

Gorpuzkia

- Hildakoaren izen abizenak edo giza-soin zatia berea zueneko personarenak
- Zergatia.....
- Eguna
- Tokia
- Ordua (lurpetik ateratzea denean ez bete)
- Garraiorako gailua
- Nondik
- Nora (herria eta hilerra)
- Eske egilea

Indarrean dagoen legerian agindutakoaren arabera, eskatutako hori eman egiten da.

.....-n, 199....ko-k

OSASUN SAILEKO LURRALDE ORDEZKARIA.

II. ERASKINA

HILABETEKO LABURPENA

HILA.	URTEKO BATU.

> ERAMANKETA BEREZIAK

> LURPERATU GABEKO GORPUTZEN GARRAIOA ETA BESTETARATZEA

* E.A.E.-an

- Baltsamaketaz
- Aldibaterako iraunarezpenaz
- Epailearen partehartza

* E.A.E.-tik kanpo

- Baltsamaketaz
- Aldibaterako iraunarezpenaz
- Epailearen partehartza
- 48 ordu baino lehen lurperatza

* Guztira

> LURPERATU GABEKO GIZA-SOIN ZATIEN GARRAIOA ETA

BESTETARATZEA

* E.A.E.an

* E.A.E.-tik kanpo

* Guztira

> GORPUTZAK LURPETIK ATERATZEA ETA GARRAIATZEA

* Hilerrian bertan

* Beste hilerrian

* Guztira

> GORPUZKIAK LURPETIK ATERATZEA ETA GARRAIATZEA

GIZA-SOIN ZATIAK LURPETIK ATERATZEA ETA GARRAIATZEA

* Hilerrian bertan

* Beste hilerrian

* Guztira

.....-n, 199....ko-k

OSASUN SAILEKO LURRALDE ORDEZKARIA.

III. ERASKINA

**LEGEAREN ARABERA.....-N EZARRITA DAGOEN EHORZKETA ENPRESAK 199.....KO
.....-N ZEHAR OSASUN SAILAREN LURRALDE ORDEZKARITZARI BIDALTZEN DIZKION GORPUTZEN
ETA GIZA-SOIN ZATIEN OHIZKO BESTETARATZEN ZERRENDA.**

EGUNA	HILDAKOAREN EDO GORPUTZ-ZATIAK BEREAK DITUENEKO PERTSONAREN IZEN ABIZENAK	ZERGATIA	HILDAKOAREN EGOITZA	GARRAIORAKO GAILUA	LUR EMATEKO HERRIA ETA HILERRIA

....., 199.....ko-k

ENPRESA,

ANEXO I

AUTORIZACION

- De conducción especial De traslado De exhumación
 Cadáver Resto humano Resto cadavérico

7

- Nombre y apellidos del fallecido o persona de quien proceda el resto humano
- Causa
- Fecha
- Lugar
- Hora (no llenar caso de exhumación)
- Medio de transporte
- Desde
- Hasta (Localidad y Cementerio)
- Solicitante

Se autoriza lo solicitado, de acuerdo con lo establecido en la normativa sanitaria vigente.

En.....a.....de.....de 199.

EL DELEGADO TERRITORIAL DE SANIDAD.

ANEXO II

RESUMEN MENSUAL

MES	ACUM. AÑO

> CONDUCCIONES ESPECIALES

> TRANSPORTE Y TRASLADO DE CADAVERES NO INHUMADOS

* Dentro de la C.A.P.V.

- Con embalsamamiento
- Con conservación transitoria
- Intervención judicial

* Fuera de la C.A.P.V.

- Con embalsamamiento
- Con conservación transitoria
- Intervención judicial
- Inhumación antes de 48 horas

* Total

> TRANSPORTE Y TRASLADO DE RESTOS HUMANOS NO INHUMADOS

* Dentro de la C.A.P.V.

* Fuera de la C.A.P.V.

* Total

> EXHUMACION Y TRANSPORTE DE CADAVERES

* Mismo cementerio

* Distinto cementerio

* Total

> EXHUMACION Y TRANSPORTE DE RESTOS CADAVERICOS

EXHUMACION Y TRANSPORTE DE RESTOS HUMANOS

* Mismo cementerio

* Distinto cementerio

* Total

Ena..... de.....de 199..

EL DELEGADO TERRITORIAL DE SANIDAD.

ANEXO III

ESTADILLO MENSUAL DE CONDUCCIONES ORDINARIAS DE CADAVERES Y RESTOS HUMANOS QUE REMITE LA EMPRESA FUNERARIA
 LEGALMENTE ESTABLECIDA EN
 A LA DELEGACION TERRITORIAL DE SANIDAD
 DURANTE EL MES DE DE 199

DIA	NOMBRE Y APELLIDOS DEL DIFUNTO O DE QUIEN PROCEDA EL RESTO HUMANO	CAUSA	DOMICILIO MORTUORIO	MEDIO DE TRANSPORTE	LOCALIDAD Y CEMENTERIO DE INHUMACION

.....a.....dede 199.....

LA EMPRESA,

Acompañarse certificado de defunción o de la amputación, aborto, etc. y licencia de enterramiento.
 Este estadillo deberá estar en las Delegaciones Territoriales de Sanidad antes del día 10 del siguiente mes.